

NAZIO BATUEN ERAKUNDEAREN GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK ETA GIZA ESKUBIDEEN MEKANISMOAK *ikuspegi feminista batetik*

GIH & CEDAW

Women's Major Group

Garapen Iraunkorrerako 2030

Agenda, Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH) izenez ere ezagunak, mundu mailako 17 helburu jasotzen ditu, elkarri lotuak eta berariaz diseinatuak "ekintza plan bat aurrera eramateko eta guztientzat etorkizun hobe eta iraunkorragoa lortzeko". Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak onartu zuen 2015ean, eta asmoa da helburuak 2030erako betetzea.

Bai CEDAWk, bai GIHetako askok, herrialdeek genero-berdintasuna eta emakumeen eta nesken ahalduzkoa lortzeko dituzten betebeharrak sustatzeko helburua dute.

GIHak agenda konplexu bat dira garapenaren dimentsio sozialak, ekonomikoak eta ingurumen-arlokoak oso-osorik integratzekoak, baina garapen iraunkorrerako emakumeen giza eskubideei buruzko ikuspegia espezifiko ez denez, *CEDAW erabil daiteke emakumeen giza eskubideei buruz GIHei eskaintzen dituzten ikuspegiak osatzeko.*

GIHen helburuak eta adierazleak jaso, CEDAW Batzordearen txosten paraleloetan.

Giza eskubideen ikuspegia jaso, GIHak ezartzeko azterketa-prozesuetan erabiltzen diren txosten alternatiboetan, estatu, eskualde nahiz mundu mailan.

GIHak tresna gisa erabili, gobernuetara laguntza eskaintzeko, horrela giza eskubideen arloan dituzten betebeharrak ezar dituzten eta aurrera egin dezaten.

Gobernuekin batera lan egin, batez ere nazio mailan, GIHetan giza eskubideen arloko betebeharrak eta estandarrak jasotzen dituzten adierazleak garatu ditzaten bultzatzeko.

Tokiko nahiz nazioko gobernuetara batera lan egin, haien ekintza-planetan eta politiketan giza eskubideetako betebeharrak GIHen ezarpenaren parte gisa jasotzen direla bermatzeko.

ZER DA CEDAW?

Emakumearen aurkako Bazterkeria Modu Guztiak Deuseztatzeari buruzko Konbentzioa (CEDAW, ingelesez) 1979an onartu zuen Nazio Batuen Batzar Nagusiak. Oro har, CEDAW deskribatzen du esaten da emakumeen eskubideen nazioarteko lege-tresna bat dela; 1981eko irailaren 3an sartu zen indarrean, eta orain arte 189 gobernu berretsi dute. CEDAW berretsi duten gobernuak aldian-aldian txostenak aurkeztu behar dizkiote **CEDAWren Batzordeari**, normalean lau urtean behin. Batzordea nazioarteko adituek osatzen dute, eta **CEDAWren Protokolo Fakultatiboa** erabiltzen duten herrialdeetan norbanakoek beren herrialdeei buruz egiten dituzten salaketak ere jasotzen ditu.

ZER DIRA GIHak?

ZERIN DA GIH-EN ETA CEDAW-REN ARTEKO LOTURA ETA INTERAKZIOA?

ZERGATIK ERABILTZEN DIRA NBE-REN GIZA ESKUBIDEEN MEKANISMOAK (CEDAW ETA BESTE HAINBAK) GIH-ETIKO KONPROMISOA ETA ERANTZUKIZUNA SUSTATZEKO?

ZER EGIN DEZAKETE ERAKUNDE FEMINISTEK?

GIHen ezarpena sustatu eta hobetzeko, ikuspegi feminista batetik eta giza eskubideetan oinarrituta. GIHei, Agendarekin, helburuekin eta adierazleekin batera, zehatzagoak izanik, eta epe espezifikoagoak dituztenez, denbora-esparru zehatzagoa eman dezakete giza eskubideen inguruko hitzarmenak eta konbentzioak ezartzeko. Giza eskubideen mekanismoek, berriz, GIHen esparruan jaso gabe dagoen zerbaiti buruzko erantzukizun-alderdiren bat gehitu dezakete.





NORA JO DEZAKEZU?

Emakumeen Talde Nagusiaren ardura da Nazio Batuen Erakundeak eskaintzen dituen gune politikoetan emakumezkoen gizarte zibileko erakundeek parte har dezaten erraztea. Emakumeen Talde Nagusiak mundu mailan nahiz eskualde mailan lan egiten du, autoantolatutako taldea da, eta prest dago edozein erakunderekin lan egiteko, erakunde horiek giza eskubideen sustapena garapen iraunkorrean oinarritu nahi badute, arreta emakumeen giza eskubideetan, emakumeen ahalduz eta genero-berdintasunean jarrita.

Une honetan, gizarte zibileko erakundeek Parte Hartzeko 4 Mekanismo daude **Asia-Pazifikoa**, Afrikan, Europan eta Latinoamerikan. Mekanismo horiek eratu dira, hain zuzen, barrutien arteko koordinazioa bermatzeko eta errazteko, eta ziurtatzeko eskualde bakoitzeko azpi-eskualde guztietako ahotsak entzuten direla eskualdeko nahiz mundu mailako gobernuarteko prozesuetan.

International Women's Rights Action Watch Asia-Pazifikoa (IWRAP)

erakunde GKE bat da, aholkularitza-estatus berezia duena Nazio Batuen Erakundeko Kontseilu Ekonomiko eta Sozialaren aurrean. CEDAWren implementazioa errazten eta kontrolatzen du, eta emakumeen giza eskubideen aldeko erakundeei laguntza ematen die txosten paraleloak prestatzeko eta konbentzioaren inplementazioa egiazatzeko.

CEDAWren Printzipio gidari

berrienak CEDAWren Batzordeak garatu zituen 2018an. Gida horren xedea da aztertzea ea estatuak betetzen ari diren beren betebeharrak giza eskubideak errespetatzearen, babestearen eta betetzearen alorrean, CEDAWk ezarritakoarekin bat eginez, eta horrez gain, identifikatzea ea aurrerapenik egiten den GJHen inguruan, batez ere 5. helburuari eta haren helmuga eta adierazleei dagokienez.



KONTUAN HARTU BEHARREKO TRESNAK

Garapen Iraunkorrerako Helburuetarako Giza Eskubideen Institutu Daniarraren Gidak

nabarmentzen du zer lotura dauden, batetik, eskualdeetan nahiz nazioartean giza eskubideen alde egiteko dauden tresnen eta GIHen helmugeren artean, eta bestetik, nazioarteko lan-arloko estandarren eta ingurumen-arloko funtsezko tresnen artean.

IWEAW-APren Tresna CEDAWrako eta GIHetarako.

Tresna iraultzailea da, giza eskubideen esparrua eta garapen iraunkorraren esparrua lotzen dituena, fokua bereziki CEDAWn eta GIHetan jarrita.

MUGIMENDUEN AHOLKUAK

Gobernu bat aztertzen ari badira, dela CEDAWren Batzordearen bidez, dela GIHen Borondatezko Azterketa Nazionalaren bidez, biak aldi berean edo une desberdinetan, emakumeen giza eskubideen aldeko erakundeek azterketa horiek baliatu ditzakete; esaterako, honela:

Gobernua GIHehiko hartutako konpromisoren bat betetzen ez badu, CEDAWren artikulua garrantzitsuak erabil ditzakete gobernuari konpromiso horiek betearazteko eskatzeko, eta alderantziz.


GIHen txosten alternatibo bat aurkez diezaizkete CEDAWren Batzordeari, azterketan eta gobernuaren azken oharretan aintzat har dadin.

CEDAWren Batzordearen azken oharra edo gomendio orokorra erabil ditzakete, nork bere gobernuaren aurrean GIHak sustatzean.

Eskualdeetan eta mundu mailan eratuta dauden plataformak eta sareak erabil ditzakete eskualde nahiz mundu mailan gobernuari beren erantzukizuna betearazteko, batez ere nazio mailan espazio demokratikoak murriztuta daudenean.

Txosten paraleloak egin ditzakete CEDAWren Batzorderako, eta txosten alternatibo bat Borondatezko Azterketa Nazionalerako, modu osagarrian, CEDAWren txosten paraleloetan GIHen konpromisoak jasota, eta alderantziz; edota batak nahiz besteak erabil dezake txostena, beste azterketa-prozesuetan jaso ezin diren hainbat auzi nabarmentzeko. Hau da, auzi zehatz bat CEDAWren txosten paraleloan ez badago, edo ezin bada hor jaso, GIHen txosten alternatiboan aurkez daiteke.

Bi azterketen arteko aldian aldaketarik gertatuz gero, azken txostenean gehitu dezakete.



5. GIH-AREN 1. HELMUGAK ESKATZEN DU "EMAKUMEEN ETA NESKEN AURKAKO BAZTERKERIA MOTA GUZTIAK DEUSEZTATU DAITEZELA LEKU GUZTIETAN"

Adierazlean, "berdintasuna eta sexuan oinarritutako bazterkeriarik eza sustatu, bermatu eta kontrolatzeko lege-esparruak izan nahiz ez izan" aipatzen da, baina ez da ezer zehazten Aldi Baterako Neurri Berezien erabilerrari buruz. CEDAWren 4. artikulua, bestalde, berariaz aipatzen du Aldi Baterako Neurri Berezien erabilera, "genero arteko egiazko berdintasuna azkartzeko".